



TXOSTEN METEOROLOGIKOA – 2019KO UZTAILA

Uztaila, prezipitazioari dagokionez, ohikoa edo hezea izan zen eta temperaturari dagokionez, berriz, oso beroa. Muturreko fenomenoetarako erreparatuz gero, hilaren lehen herenean izandako zaparrada handiren bat salbu, lasaia izango zela zirudien, baina hilaren 22tik aurrera, lau egunetan, bero-bolada izan genuen; horrekin batera zaparrada trumoiatsuak bota zituen eta haize-bolada indartsuak izan ziren, baso-sute txikiren batekin batera.

Prezipitazioa

Uztaila ohikoa edo hezea izan zen. Arabako bailaretatik Gernika-Bermeo arteko zonaldean izan zen bereziki hezea, ekaitzen ondorioz batez ere. Ohikoa den moduan, prezipitazio gehien Gipuzkoa ipar-ekialdean pilatu zen, Nafarroako mugatik hasi (Eskas 161.5 mm, Behobia 113.4 mm, Añarbe 110.9 mm) eta kostaldera bitartean (Miramon 97.3 mm, Oiartzun 96.8 mm, Lasarte 92.7 mm). Durangaldean eta Arratia-Nerbioien jasotako prezipitazio kopurua ez zen balio horietatik gehiegi urrundu (Otxandio 87.7 mm, Amorebieta 86.8 mm, Mañaria 84.9 mm). Gauza berdina gertatu zen kostaldean neurtutako balio batzuekin (Matxitxako 77.7 mm, Oleta 76.2 mm). Baliorik baxuenak Arabako Lautadaren erdialdetik Arabako Errioxara bitartean kokaturiko zonaldean neurtu ziren (Ozaeta 17.6 mm, Arkauti 22.1 mm, Trebiño 19.6 mm, Kanpezu 21.6 mm, Moreda 22.6 mm). Balio horien eta Araba mendebaldean neurtutakoen artean (Altube 63.7 mm, Espejo 60.6 mm, Mungia 61.7 mm) alde handia dago. Enkarterrietan ere prezipitazio gutxi jaso zen (Ordunte 18.6 mm, Balmaseda 19.9 mm, Aranguren 26.4 mm).

Euri-egun kopurua ohikoa izan zen; kostaldearen ekialdean zortzi izan ziren eta Araba barnealdean lau. Hilaren lehen eta azken herenetan izan ziren.

Lau egunetan prezipitazioa oso ugaria izan zen (≥ 30 mm). Lehenik eta behin, hilaren 8an, baina zaparradak oso puntualak izan ziren Gipuzkoa ipar-ekialdean (Zizurkil 32.8 mm, Berastegi 30.9 mm). Bi estazio horietan zaparradak, gainera, handiak izan ziren (Zizurkil 20.7 mm/h, Berastegi 16.5 mm/h). Aurreko egunetan ere zaparrada handiak izan ziren beste toki batzuetan: hilaren 3an Arabako bailaretan (Espejo 23.2 mm/h) eta hilaren 5ean Deba Goienean (Urkulu 16.9 mm/h).

Hilaren 23tik 25era tenperatura altu eta iraunkorreko bolada izan genuen, eta giro sargoria nagusitu zen. Arratsaldetan ezegonkortasun larriak pasa ziren eta zaparrada trumoiatsuak bota zituen.

Hilaren 23an EA Eren mendebaldea zeharkatu zuten ekaitzek, bereziki Gaubea eta Gernika-Bermeo, eta zaparrada ertainak bota zituen, puntualki handiak (Arteaga 16.3 mm/h, Muxika 13.9 mm/h, Igorre 13.4 mm/h, Altube 11 mm/h).



Hilaren 25ean isurialdeen banalerroko toki batzuetan prezipitazioa oso ugaria izan zen (Otxandio 44.7 mm). Pilatutako kopuruaren zati handi bat ordubete pasatxoan bota zuen eta, ondorioz, zaparrada oso handiak izan ziren, hilabeteko handienak (Otxandio 36.5 mm/h). Goierrin ere aipatzeko moduko zaparrada trumoitsoak bota zituen, Gipuzkoa ekialde osoa zeharkatu zuten ekaitzek utzitakoa: Agauntza 14.5 mm/h; Zegama 11.6 mm/h. Zaparrada horiekin batera amaitu zen hilaren 22an hasitako bero-bolada.

Ondorengo egunak, 26a eta 27a, izan ziren, alde handiarekin, euritsuenak; prezipitazioa orduan zonalde gehienetara iritsi zen. Hilaren 26an 20 mm baino gehiago pilatu ziren kostaldeko zenbait estaziotan (Oleta 36.1 mm, Eskas 30.6 mm, Oiartzun 29.9 mm). Jasotako kopuru horiek bota zituen zaparrada ertainen (ia handien) ondorioa izan zen (Oleta 13.8 mm/h, Oiartzun 13.1 mm/h, Lasarte 12.6 mm/h). Hurrengo egunean are prezipitazio gehiago jaso zen, bereziki Gipuzkoako ipar-ekialdean (Behobia 49.4 mm, Eskas 49.2 mm, Miramon 35.5 mm, Ereñozu 31.4 mm).

Taula 1: Azken urteetan uztailean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010
Deusto	43.7	24.6	32.0	33.4	26.2	60.8	21.4	15.8	69.0	16.3
Lasarte	92.7	80.0	64.6	68.0	48.8	116.4	44.8	53.4	135.9	25.4
Arrasate	41.5	54.5	34.6	39.9	20	101.3	13.4	17.7	92.9	8.4
Abetxuko	27.9	64.1	10.9	9.3	20.9	37.9	41.8	14.2	30.3	4.7
Párganos	23.1	59.6	31.8	6.9	34.9	20.9	52.3	15.1	14.6	4.3

Temperatura

Temperaturari dagokionez, uztailea oso beroa izan zen. Kostaldean batez besteko temperatura 21 °C izan zen eta Arabako Lautadan 20 °C inguru, 1981-2010 denboraldi klimatologikoko batezbestekoarekin alderatuz diferentzia positiboa da, ia 1.4 °C-koa EAE osorako. Mende honetako bosgarren uztailik beroena izan zen; beroena 2006koa izan zen.

Egun beroak erabat gailendu ziren, eta hilabetearen amaieran soilik izan genituen egun hotz batzuk.

Termikoki, hilabete honetako gertaera esanguratsuena bero bolada izan zen. Muturreko egoerak lau egun iraun zituen zonalde guztietan, 22tik 25era, kostaldean izan ezik. Bertan, soilik egun bat iraun zuen, itsasaldeko fluxuagatik, horrek ez baitzuen tenperatura maximoei hainbeste igotzen utzi. Hilaren 23an hegoaldeko haizea harro ibili zen eta tenperatura asko igo zen. Nolanahi ere, kostaldean, tenperatura minimoak oso altuak izan ziren gertaera osoan, ez ziren 20 °C-tik jaitsi.



Lau egun haietan, muturreko temperatura oso altuen atalaseak gainditu ziren barnealdean. Egunik beroena hilaren 23a izan zen eta alerta laranja igorri zen. Temperatura maximoek uztailleko markak hautsi zituzten barnealdeko estazio askotan, bereziki Kantauri barnealdean, baina baita Donostialdean ere, bertan balio altuenek 40 °C-ren muga gainditu zuten (Eitzaga 42.5 °C, Ibai Eder 42.5 °C, Alegia 41.9 °C, Berriatua 41.9 °C, Sodupe-Cadagua 41.4 °C, Miramon 41.1 °C, Lasarte 40.8 °C, San Prudentzio 40.7 °C, Zizurkil 40.7 °C, Areta 40.7 °C, Gardea 40.4 °C, Oleta 40.2 °C, Igorre 40.2 °C, Ordizia 40 °C). Arabako bailaren hegoaldean ere, Zambranan hain zuzen, 38.9 °C neurtu zen; estazioko marka gainditu zen.

Hilaren 24an, kostaldean izan ezik, temperatura maximoek altuak izaten jarraitu zuten, hortaz, alerta larriak jarraipena izan zuen. Zenbait estaziotan, aurreko eguneko balioak gainditu ziren eta berriro ere efemerideak neurtu ziren, kasu horretan Araban (Salvatierra 37.8 °C, Etura 37.7 °C, Kanpezu 37.2 °C, Navarrete 36.6 °C). Zambranan, berriro ere 38.9 °C neurtu ziren. Bitxikeri moduan, aipatzekoa da, gauean une batean haizea hegoaldetik finkatu zela kostaldeko zenbait tokitan. Horrela, adibidez temperatura 30 °C ingurukoa izan zen Deusto-ko estazioan 22:00etan eta 29 °C ingurukoa gauerdian Behobian. Pare bat ordu pasa ostean, haizea berriro iparraldetik finkatu zen eta temperaturak behera egin zuen.

Balio haiek altuenak izan ziren, uztaillekoak ez ezik, uda osokoak ere bai, orain arte neurtutakoaren arabera mende honetakoak behintzat bai (Ibai Eder, Berriatua, Sodupe-Cadagua, Miramon, Areta, Oleta).

Tenperatura altuagatik, hego-osagaiko haizeagatik eta hezetan erlatibo baxuagatik, baso-sute arriskua altua izan zen EAEn 23tik 25era bitartean. Azken egun hartan, Betolaza inguruan (Arabian) sua piztu zen eta kea Gasteizera iritsi zen iparraldeko haizeak bultzatuta. Hala ere, berehala amatu zen, beste arrazoi batzuen artean, zonaldean botatuko zaparrada trumoitso mardulei esker. Txingorra ere egin zuen.

Hilaren 26an, aire masa aldatu egin zen, subtropikal kontinental bat aldendu eta itsasaldeko polar bat iritsi zen. Ondorioz, temperatura asko jaitsi zen. Barnealdean, aurreko eguneko balioekin alderatuz gero, maximoen arteko aldea 20 °C-koa izan zen. Aldaketa oso handia izan zen, izan ere, hurrengo eguna hilabete osoko hotzena izan zen EAEn.

Balio minimo absolutuak, oro har, hilaren azken egunetan neurtu ziren. Arabako mendietan eta isurialdeen banalerroko zenbait tokitan temperatura 4-6 °C-ra jaitsi zen (Pagoeta 4.1 °C, Iturrieta 4.8 °C, Navarrete 5.4 °C, Sarria 6.3 °C, Otxandio 6.4 °C). Kostaldean 15 °C-tik jaitsi zen (Higer 14.7 °C, Galindo 14.6 °C, Zarautz 14.2 °C).

Intsolazioa, batezbesteko klimatologikoa baino zertxobait handiagoa izan zen, % 6-7 handiagoa, kostaldearen ekialdean izan ezik, bertan apur bat txikiagoa izan zen.

**Taula 2: Uztailean, azken urteetan, neurtutako batez besteko temperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan**

	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010
Deusto	21.0	21.8	19.8	21.1	21.6	20.3	22.1	19.7	19.2	20.7
Lasarte	20.3	21.2	19.8	19.8	20.8	19.2	21.7	19.0	18.2	20.1
Arrasate	19.8	20.1	19.4	19.0	20.1	18.2	21.4	18.1	17.1	19.3
Abetxuko	19.9	20.1	19.5	19.3	20.7	18.5	21.3	18.1	17.1	19.3
Párganos	21.9	20.9	21.1	20.8	22.3	19.4	22.4	19.4	18.9	21.3

Haizea

Lehenengo eta laugarren koadranteako fluxuak nagusitu ziren. Oro har, haizea ez zen indartsu ibili eta kostaldean brisa altxatu zen. Hilabetearen azken herenean, hegoaldeko haizea ere ibili zen tarteka.

Hilaren 13an, haize-bolada gogorak eta oso gogorak izan ziren mediterraneo isurialdean, penintsulan sortutako baxu hotz txiki bati loturiko ezegonkortasun lerro bat EA Eren hegoaldeetik sartu eta erkidego osoa zehartu zuenean (Párganos 81.7 km/h, Ilarduia 75.2 km/h, Moreda 65.5 km/h).

Hilaren 23a izan zen egunik haizetsuena, soilik egun hartan gainditu zen haizeguneetan 100 km/h-ko abiadura. Egund hartan, hego-osagaiko haizea ibili zen goizean, baina eguerditik aurrera, kostaldean ipar-mendebaldetik finkatu eta zakartu egin zen, itsasaldera irten ziren ekaitzek ere aktibatuta (Untzueta 117.4 km/h, Orduña 109.8 km/h, Matxitxako 102.6 km/h). Araba mendebaldeko haizeguneak ez diren toki askotan 80 km/h-tik gorako ufadak neurtu ziren (Espejo 92.2 km/h, Párganos 88.6 km/h, Zambrana 87.8 km/h, Areta 82.4 km/h).

Hilaren 24an, enbata bat izan ez arren, arratsaldean haizea iparraldetik finkatu zen Gipuzkoan, brisa moduan, eta Bizkaian ekaitzak itsasaldera irten zirenean, Gipuzkoa ekialdean haizea ipar-mendebaldetik finkatu eta zakartu egin zen (Santa Clara 67.4 km/h 17:40 h UTC, Higer 76.2 km/h 17:50 h UTC).

Analisisa

Uztailaren 1etik 2ra

Uztaila giro zertxobait ezegonkorrekin hasi zen. Azoreetako antizikloia iparralderantz luzatu zen eta Kantauri itsaso osoan iparraldeko haizea ibilarazi zuen. Ondorioz, kantauri isurialde osoan behe-hodeiak agertu ziren. 500 hPa-eko mailan, ezegonkortasun apur bat sortu zen, hortaz, arratsaldetan ekaitz batzuk garatu ziren.



Uztailaren 3tik 5era

Hilaren 3an, antizikloia Britainiar uharteetarantz mugitu zen. Bitartean, goi-geruzetan askatutako depresio txiki bat Galizia mendebaldean kokatu zen hilaren 4an. Hark hegoaldeko haizea eta tenperaturaren gorakada nabarmena eragin zituen. Ezegonkortasun haren ondorioz, arratsaldean ekaitzak sortu ziren berriro ere, eta hilaren 3an, 23 mm/h jaso ziren Espejon. Hilaren 5ean, depresio askearen eragina pixkanaka gutxitzen joan zen eta haizea iparraldera aldatu zen kantauri isurialdean. Hortaz, tenperaturak behera egin zuen, batez ere kostaldean, baina barnealdean berdin jarraitu zuen.

Uztailaren 6tik 7ra

Hilaren 6-7ko asteburuko egoera ez zen oso zehaztuta egon; penintsula osoan presio gradientea txikia izan zen eta goi-geruzetako depresio askea mendebaldean ainguratuta egon zen. Lurrazalean, haizea iparraldekoa izan zen, ondorioz, kantauri isurialdean behe-hodei ugari agertu zen. Tenperaturak ez zen gorabehera handirik izan, mediterraneo isurialdean altua izan zen, 30 °C-tik gorakoa.

Uztailaren 8tik 9ra

Hilaren 8an, goi-geruzetan askaturiko depresioa ekialderantz mugitu eta Iberiar penintsulan kokatu zen. 500 hPa-eko mailan, tenperatura -20 °C-koa izan zen. Hark, 850 hPa-eko mailan zegoen tenperatura altuarekin batera –Nafarroan eta Aragoi 22 °C-koa izan zen-, ezegonkortasun handia eragin zuen. Zaparrada eta ekaitz ugari bota zituen, haietako batzuk Tafallan kalte handiak eragin zituzten. EAEn, ekaitz handi batzuk izan ziren Gipuzkoa ekialdean. Hilaren 9an, depresio askeak ekialderantz mugitzen jarraitu zuen eta ezegonkortasuna gutxitu egin zen eguerditik aurrera.

Uztailaren 10etik 12ra

Hilaren 10etik aurrera presio altuak nagusitu ziren. Azoreetako antizikloia ziri moduan sartu zen Kantauri itsasoan. 500 hPa-eko mailan, Iberiar penintsula gailur antizikloniko baten eraginpean egon zen, bere ardatza hego-ekialde/ipar-mendebaldera zuzenduta. Aldi berean, aire hotzeko poltsa bat askatu zen, Kanariar uhartean eta penintsularen artean kokatuta zegoena, eta nahikoa geldikor egon zen hilaren 13ra arte. Egun guzti haietan, zerua hodei gutxiarekin edo oskarbi egon zen, tenperaturak gora egin zuen, eta hilaren 11n eta 12an 30 °C-ren muga gainditu zen barnealde osoan.

Uztailaren 13tik 14ra

Azoreetako antizikloia iparralderantz luzatu zen Islandiakoarekin bat eginez eta mendebaldeko zirkulazioa eten zuen. Bitartean, goi-geruzetako depresio aske txikia penintsulan sartzen eta betetzen joan zen. Ekialderantz mugitu heinean ekaitzak sortzen joan ziren, eta Gaztela eta Leoneko toki gehienetan eta Araba hegoaldean eragina izan zuten.

Uztailaren 15etik 21era

Hilaren 15ean, presio altuak Britainiar uharteetan kokatu ziren. Hurrengo egunean, Azoreetako altuarekin bat egin zuten. Penintsularen barnealdean egin



zuen beroaren eraginez -850 hPa-eko mailan 25-26 °C-ko temperatura neurtu zen Mantxa inguruan-, ohikoa den baxu termikoa sortu zen. Eguraldi eguzkitsua nagusitu zen egun horietan, ipar partean behe-hodei batzuekin, bereziki kostaldean, Kantauri itsasotik oso ahulduta igaro ziren fronteen ondorioz.

Uztailaren 22tik 25era

Hilaren 22an, temperatura altuko denboraldi bat hasi zen. Ekaina bukaerako antzeko egoera nagusitu zen. 500 hPa-eko mailan antizikloiak omega itxura hartu zuen blokeo egoera bat sortuz, eta Afrika iparraldetik Europa erdialderaino zabaldu zen. Lurrazalean, presio altu moduan islatu zen Alpeen inguruan hilaren 22an eta ondoren Alemanian. Konfigurazio harekin, Afrika iparraldetik aire erabat beroko masa bat iritsi zen, 850 hPa-eko mailan temperaturak 25 °C-ren muga gainditu zuen. Konfigurazio haren iraupenaren ondorioz, Afrikan jatorria izan zuen aire masa Europa iparralderaino eta Britainiar uharteen hegoalderaino zabaldu zen. Hilaren 25ean, temperatura maximoen markak hautsi ziren Europa mendebaldeko toki askotan (adibidez, Parisen 42.6 °C neurtu ziren, aurreko marka baino 2 °C altuagoa). Lehenengo egunean izan ezik, besteetan zaparrada trumoitsuak bota zituen arratsaldegauean, ezegonkortasun handia egon zelako. Alde batetik, pilatutako beroaren ondorioz, eta bestetik, goi-geruzetan eta penintsularen ipar-mendebaldean sortu zen aska baten gertutasunagatik.

Uztailaren 26tik 28ra

Hilaren 25eko azken orduetan, baina bereziki hilaren 26tik aurrera, eguraldia erabat aldatu zen. 500 hPa-eko mailan aska bat Atlantikotik iritsi zen eta aire masa berri egin zuen. Afrika iparraldean jatorria izan zuen aire masa subtropikal kontinental bat aldendu eta itsasaldeko polar bat iritsi zen, askoz freskoagoa. Lurrazalean, fronte bat moduan islatu zen eta hilaren 26ko lehenengo orduetan igaro zen. Eguraldi euritsua nagusitu zen, zaparrada eta ekaitz ugari bota zituen egunaren lehen zatian. Hilaren 25ean, arratsaldegauean, fronte baten aurreko ekaitzak sortu ziren. Temperatura maximoak asko eta bat-batean jaitsi ziren eta aurreko egunekoekin alderatuz gero, 16 °C baxuagoak izan ziren zenbait tokitan. Hilaren 27an, askak eta berari loturiko fronte hotz batek penintsula zeharkatu zuten eta goizean eragin ziguten. Giro euritsua nagusitu zen eta gauean zaparradak ipar isurialdera mugatu ziren. Hilaren 28an, presio altuko ziri txiki bat Kantauri itsasotik sartu zen eta eguraldiak nabarmen argitzera eta egonkortzera egin zuen egunaren bigarren zatian, zerua ia garbi geratu zen.

Uztailaren 29tik 31ra

Hilabetearen bukaera nahikoa lasaia izan zen. Urte sasoirako temperatura freskoa izan zen, hodei ugari agertu zen eta olatuek indarrez jo zuten kostaldearen ekialdea, atlantikoko depresio baten eraginez. Ezohikoa izan zen, uda garaia izateko, indar handia izan zuelako. Bizkaiko Golkoa zeharkatu zuen, ondoren Mantxako kanalerantz aldentuz. Bere atzetik, Azoreetako altua ziri moduan sartzen hasi zen Kantauri itsasora.








Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2019ko uztaileko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri- egunak.
Deusto	21.0	24.7	38.7	17.9	14.3	0	43.7	19.5	5
Lasarte	20.3	24.4	40.8	16.6	12.8	0	92.7	25.0	10
Arrasate	19.8	26.9	40.1	14.1	9.3	0	41.5	14.4	7
Abetxuko	19.9	28.1	37.9	12.9	7.0	0	27.9	9.6	6
Páganos	21.9	29.7	37.4	14.7	7.7	0	23.1	7.6	3



Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak



Pilatutako prezipitazioa

 Temperatura minimoa


 Batez besteko temperatura

 Temperatura maximoa




Prezpitazioaren jokaera


Behatutako prezpitazioa
Precipitación observada




Prezpitazio normala
Precipitación normal



Prezpitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normal



Prezpitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normal





Muturreko egoerak

Uztailean 21 abisu hori igorri ziren: 6 prezipitazio handiagatik, 1 olatuen altueragatik nabigaziorako, 2 enbatagatik, 4 temperatura altu iraunkoragatik, 5 muturreko temperatura oso altuengatik eta 3 baso-sute arriskuagatik.

Horrez gain, 2 alerta laranja igorri ziren prezipitazio handiagatik eta beste 2 muturreko temperatura oso altuengatik.

- Hilaren 3an, goizaldean, zaparrada bakan batzuk bota zituen, Iberiar sisteman edo EAEn bertan garatutakoak. Arratsaldean, Iberiar penintsulako baxu termikoari loturiko ezegonkortasun larro batek meseta iparraldea zeharkatu zuen Kantauri itsasora bidean eta EAEn mendebaldean eragin zuen, zaparrada ertain eta trumoitsuak utziz, puntualki handiak (Espejo 23.2 mm/h, Igorre 10.9 mm/h, Amorebieta 9.3 mm/h, Subijana 8.9 mm/h, Zambrana 8.5 mm/h).

Asteazkena, hilak 3: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 20etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 4an, goi-geruzetako depresio askatu bat Iberiar penintsularen mendebaldean kokatu zen eta hego-osagaiko haizea indartu zuen temperaturaren gorakada eraginez. Maximoek puntualki 36 °C-ren muga gainditu zuten Kantauri barnealdean (Ibai Eder 36 °C, Alegia 36.1 °C, Aranguren 36 °C, Saratxo 35.9 °C).

Osteguna, hilak 4: Abisu Horia muturreko temperatura oso altuengatik Kantauri barnealdean 14etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 5ean, EAEn bertan ekaitzak garatu ziren eta arratsaldean zaparrada ertainak utzi zituzten, puntualki handiak Gipuzkoa barnealdean (Urkulu 16.9 mm/h, Oñati 9 mm/h, Aitzu 7.3 mm/h).
- Hilaren 8an, Iberiar penintsulan zegoen baxu termiko baten eraginez, zaparrada trumoitsu handiak bota zituen, bereziki Tolosaldean eta Donostialdean (Zizurkil 20.7 mm/h, Berastegi 16.5 mm/h, Belauntza 15.3 mm/h, Andoain 12.6 mm/h, Zarautz 12.5 mm/h, Amorebieta 12.1 mm/h, Lasarte 10.6 mm/h).

Astelehena, hilak 8: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 21etara ordu lokala. Alerta Laranja prezipitazio handiagatik 21etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 22tik 25era, temperatura altu iraunkorreko gertaera izan zen zonalde guztietan, kostaldean izan ezik. Bertan, soilik hilaren 23an iraun zuen, beste egunetan, itsasaldeko haizeak temperaturaren igoera oztopatu zuen.



Data	Kostaldea		Kantauri barnealdea		Iragate-zona		Ebro ondoko eskualdea	
	Max (°C)	Min (°C)	Max (°C)	Min (°C)	Max (°C)	Min (°C)	Max (°C)	Min (°C)
22/07/2019	27	20	35	18	36	16	37	19
23/07/2019	39	20	40	18	37	18	38	21
24/07/2019	28	21	39	17	38	19	38	18
25/07/2019	25	21	35	19	37	19	37	18

Astelehena, hilak 22: Abisu Horia temperatura altu iraunkorragatik EAEn.

Astearte, hilak 23: Abisu Horia temperatura altu iraunkorragatik EAEn.

Asteazkena, hilak 24: Abisu Horia temperatura altu iraunkorragatik EAEn.

Osteguna, hilak 25: Abisu Horia temperatura altu iraunkorragatik barnealdean 00etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 22an, haizea hego-ekialdetik finkatu zen barnealdean eta temperatura igotzen hasi zen, bai minimoak eta baita maximoak ere. Goizaldean temperatura ez zen 20 °C-tik jaitsi, batez ere kostaldetik gertu, eta maximoek 35 °C-ren muga gainditu zuten. Kostaldean, ipar-ekialdeko haizea nagusitu zen eta temperatura 30 °C-ra iristea eragotzi zuen.

Estazioa	Max (°C)	Estazioa	Min (°C)
Zambrana	38.9	Higer	21.8
San Prudentzio	38.9	Galindo	21.6
Arrasate	38.7	Punta Galea	21
Oñati	38.7	Oleta	20.9
Saratxo	38.3	Mungia	20.8
Espejo	37.7	Deusto	20.8
Etura	37.3	Moreda	20.6
Moreda	37.2	Aranguren	20.3
Arkauti	37	Almike (Bermeo)	20.3
		Santa Clara	20.2
		Oiartzun	20.1
		Behobia	20.1
		Matxixako	20.1

Astelehena, hilak 22: Abisu Horia muturreko temperatura oso altuengatik barnealdean 12etatik 21etara ordu lokala.

- Hilaren 23an, hego-osagaiko haizea indartu egin zen, bolada gogor eta oso gogorrekin haizeguneetan, hortaz, temperatura berriro ere igo egin zen EAE osoan. Temperatura minimoak toki askotan 20 °C-tik gora geratu ziren. Bestalde, balio maximoek uztaileko markak hautsi zituzten barnealdeko estazio askotan, baita Donostialdean ere, izan ere, zenbait estaziotan 40 °C-ren muga gainditu zuten.

Estazioa	Max (°C)	Estazioa	Min (°C)
Ibai Eder	42.5	Moreda	24.2
Eitzaga	42.5	Kanpezu	22.8
Alegia	41.9	Paganos	22.5
Berriatua	41.9	Galindo	22.2
Sodupe-Cadagua	41.4	Deusto	22
Aranguren	41.1	Higer	21.8
Miramon	41.1	Punta Galea	21.6



Lasarte	40.8	Zegama	21.2
Zizurkil	40.7	Alegia	20.8
Areta	40.7	Ilarduia	20.7
		Gasteiz	20.5
		Zarautz	20.2
		Herrera	20

Asteartea, hilak 23: Alerta Laranja muturreko tenperatura oso altuengatik EAEn 12etatik 21etara ordu lokala.

- Hilaren 23an, 100 km/h-ko abiadura gainditu zen haizeguneetan. Egun hartan, hego-osagaiko haizea nagusitu zen goizean, baina eguerditik aurrera ipar-mendebaldera egin zuen eta kostaldean zakartu egin zen, itsasaldera irten ziren ekaitzek ere indartuta. Barnealdean, haizea ekaitz-eremuetan zakartu zen (Untzueta 117.4 km/h, Orduña 109.8 km/h, Matxitxako 102.6 km/h) eta Araba mendebaldeko haizeguneak ez diren toki askotan 80 km/h-tik gorako ufadak izan ziren (Espejo 92.2 km/h, Párganos 88.6 km/h, Zambrana 87.8 km/h, Areta 82.4 km/h).

Asteartea, hilak 23: Abisu Horia itsasaldeko-arriskuagatik: enbata kostaldean 16etatik 20etara ordu lokala.

- Hilaren 23an, egunez pilatutako beroaren ondorioz, ezegonkortasun termikoa egon zen, eta goi-geruzetan sortutako askaren gertutasunak ezegonkortasun dinamikoa eragin zuen. Hortaz, arratsaldean bero-hodeiak garatu ziren eta zaparrada trumoitsu mardulak bota zituen, zenbait lekutan handiak (Arteaga 16.3 mm/h, Muxika 13.9 mm/h, Igorre 13.4 mm/h, Altube 11 mm/h).
- Hilaren 24an, hegoaldeko haizea zertxobait ahuldu zen, hortaz, kostaldean ipar-ekialdeko haizea nagusitu zen berriro ere eta bertan tenperatura maximoak jaitsi egin ziren. Gainerako tokietan, aldiz, tenperatura maximoak aurreko egunekoak baino zertxobait altuagoak izan ziren eta berriro ere efemerideak izan genituen estazio batzuetan, bereziki Araban. Tenperatura minimoek estazio askotan 20 °C-tik gora egoten jarraitu zuten, bereziki kostaldetik gertuko tokietan.

Estazioa	Max (°C)	Estazioa	Min (°C)
Saratxo	40	Santa Clara	22
San Prudentzio	39.9	Higer	22
Arrasate	39.8	Herrera	21.6
Aranguren	39.7	Oiartzun	21.5
Ordizia	39.5	Punta Galea	21.3
Areta	39.4	Galindo	21.3
Estanda	39.3	Moreda	21.2
Oñati	39	Zarautz	21
Moreda	38.2	Deusto	20.9
Salvatierra	37.8	Kapildui	20.8
Etura	37.7	Oleta	20.6
Kanpezu	37.2	Behobia	20.6
		Zaldiaran	20.3



Asteazkena, hilak 24: Alerta Laranja muturreko temperatura oso altuengatik barnealdean 12etatik 21etara ordu lokala.

- Hilaren 24an, enbata izan ez arren, arratsaldean Gipuzkoan haizea iparraldetik finkatu zen brisa moduan, eta ekaitzak Bizkaian itsasaldera irten zirenean haizea ipar-mendebaldetik finkatu eta zakartu egin zen Gipuzkoa ekialdean (Santa Clara 67.4 km/h 17:40 h UTC, Higer 76.2 km/h 17:50 h UTC).

Asteazkena, hilak 24: Abisu Horia itsasaldeko-arriskuagatik: enbata Gipuzkoako kostaldean 20etatik 22etara ordu lokala.

- Hilaren 25ean, temperatura goizaldean altua izan zen oraindik, 20 °C-tik gorako balioekin. Araban eta Gipuzkoa barnealdean berriro hego-ekialdeko haizea ibili zen eta maximoak 35 eta 40 °C artekoak izan ziren. Hala ere, kostaldean ipar-osagaiko haizea sartu zen eta ia Bizkaia osora zabaldu zen, ondorioz, zonalde horietan temperatura maximoek behera egin zuten eta, oro har, 30 °C-tik behera geratu ziren. Araban, Aguraineko estazioan, efemeridea izan genuen hamarren bategatik (Salvatierra: 37.9 °C).

Estazioa	Max (°C)	Estazioa	Min (°C)
Arrasate	38.8	Higer	22.6
Saratxo	38.6	Galindo	22.1
San Prudentzio	38.5	Moreda	21.8
Estanda	40.2	Deusto	21.7
Zambrana	38.2	Punta Galea	21.5
Agauntza	38.1	Behobia	21.3
Moreda	38	Mungia	21.3
Salvatierra	37.9	Sangroniz	21
Ordizia	37.6	Kanpezu	20.9
Abetxuko	37.4	Miramón	20.5
Etura	37.3	Paganos	20

Osteguna, hilak 25: Abisu Horia muturreko temperatura oso altuengatik iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 12etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 25ean bero-hodeiak garatu ziren eta zaparrada trumoiatsu handiak bota zituen, bereziki isurialdeen banalerroaren inguruan, bertako zenbait tokitan oso handiak izan ziren (Otxandio 36.5 mm/h eta 13.2 mm/10', Agauntza 14.5 mm/h, Urkiola 13.4 mm/h, Zegama 11.6 mm/h, Aixola 11.4 mm/h). Txingor ale txikiak ere bota zituen (txingorra Araba iparraldean behatu zen: Betolazan, Miñaon eta Elosun).

Osteguna, hilak 25: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Gipuzkoan eta Araban 18etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 23tik 25era bitartean, baso-sute arriskua altua izan zen EAEn temperatura altuagatik, hego-osagaiko haizeagatik eta hezetasun erlatibo baxuagatik. Azken egun hartan, Betolaza inguruan (Araba) sua piztu zen eta



kea Gasteizeraino iritsi zen iparraldeko haizeak bultzatuta. Hala ere, sutea azkar itzali zen bertan bota zituen zaparrada trumoitsu mardulek lagunduta eta txingorra ere egin zuen.

Asteartea, hilak 23: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik EAEn.

Asteazkena, hilak 24: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik EAEn.

Osteguna, hilak 25: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik barnealdean 00etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 26an, Iberia penintsula barnealdeko baxu termiko txiki bati loturiko fronte okluito batek zeharkatu zuen EAE eta zaparrada ertain eta trumoitsuak bota zituen kostaldeko toki askotan, ia handiak izan ziren (Oleta 13.8 mm/h, Oiartzun 13.1 mm/h, Lasarte 12.6 mm/h).

Ostirala, hilak 26: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 03etatik 12etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologi gidan aurki daiteke:

http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeke daude.